

URUMEAKO **Kronika**

2016/05/30



HERNANI Maiatzak 30



Dantza, musika eta antzerkia nahastuko dira emanaldian.

[albisteak//SAGARDOETXEA](#)

Musika eta antzerkia, sagastiek inguratuta

'Luis eta Eugeniaren bikiak' antzeztuko dute arratsaldeko 17:30etan hasita.

ASTIGARRAGA

2016/05/28 00:00 Larunbata

Murgiatarren familia eta Santiomendiko baserriko familia izango ditu protagonista gaur, 17:30etatik aurrera Sagardoetxeako sagastietan antzeztuko den lanak: Luis eta Eugeniaren bikiak.

Ezkontzaren ondoren, bataioa

Lehenengo urteko antzezlanaren jarraipena izango da gaurkoa. Lehenengo urtean, markesaren alaba eta

Santiomendiko semea ezkondu egin ziren, eta aurtengoan, senar-emazteek bikiak izan dituztela antzetzuko da, eta bataioa eta festa haundia izango dira, ospatzeko.

Antzerki musikatu honekin, bukaera emango dio Sagardoetxeak Sagastiak Loretan udaberriko jaialdiari.

50 aktore eta musikari inguru

Emanaldia Sagardoetxeako sagastietan egingo da, eta aurten ere, Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasleek, Antzerki Eskolakoek eta Astigar dantza taldeko dantzariak hartuko dute parte; guztira, 50 bat, aurten ez baita abesbatzarik izango.



Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*



reCAPTCHA erroka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzailerik](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)